

TOKI ADMINISTRAZIOA

3

ADMINISTRACIÓN LOCAL

TOLOSAKO UDALA

*Iragarkia*

Udalbatzak, bi mila eta hogeita hiruko urtarrilaren hogeita seian, Ohiko Osoko Bilkuran, besteak beste, honako erabaki hau hartu zuen:

*Lehena.* Tolosako HAPOko «23. Usabal Industrialdea 2» esparruko aldaketa puntualari buruzko espedientea hastea.

*Bigarrena.* Aldaketa puntualaren prozesuko herritarrek parte hartzeko programa onartzea.

Programak honako eduki hau izango du:

– Talde eragile bat sortuko da parte hartzeko prozesua diseinatu, koordinatu eta jarraipena egiteko. Bertan honako erakundeetako ordezkariak hartuko dute parte: Tolosako Udalak (Hirigintza, Obrak, Zerbitzuak eta Ingurumena Departamentuko eta Komunitatea eta Gobernantza Departamentuko arduradun tekniko-politikoek).

– Herritarren parte hartzeko bilera irekiak antolatuko dira. HAPOaren Aldaketa Puntualaren Hasierako Onespeneko dokumentua idatzita dagoenean, proposamena azaltzeko bilera ireki bat egingo da.

– Landutako materiala eta Hirigintza-agiriak herritarren eskura egongo dira. Tolosako Udaleko bulegoetan eta web orrian landutako dokumentu, laburpen eta euskarri guztiak eskuragarri egongo dira.

*Hirugarrena.* Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzea Tolosako HAPOko «23. Usabal Industrialdea 2» Hirigintza Esparruko Aldaketa puntualaren Herritarren Partaidetzarako Programa, eta informazioaren teknologia berrien bidez zabaltzea.

*Laugarrena.* Informazioa eskatzea babes zibilean, ingurumenean, kultura-ondarean eta natura-ingurunean eskumena duten Eusko Jaurlaritzako eta Foru Aldundiko sailei, dauden arriskuei buruz eta udalerrriaren antolamenduak errespetatu behar dituen ingurumen-baldintzatzaileei, kultura-ondarearen babesari eta natura-inguruneari buruz.

Tolosa, 2023ko otsailaren 2a.—Olatz Peon Ormazabal, alkatea. (803)

AYUNTAMIENTO DE TOLOSA

*Anuncio*

El pleno del Ayuntamiento, en sesión ordinaria celebrada el veintiséis de enero del dos mil veintitrés, entre otros, adoptó el siguiente acuerdo:

*Primero.* Iniciar el expediente de modificación puntual del ámbito «23. Usabal Industrialdea» del PGOU de Tolosa.

*Segundo.* Aprobar el programa de participación ciudadana del proceso de la modificación puntual.

El contenido del programa será el siguiente:

– Se creará un grupo motor para el diseño, coordinación y seguimiento del proceso participativo. En el mismo participarán representantes del Ayuntamiento de Tolosa (responsables técnico-políticos del Departamento de Urbanismo, Obras, Servicios y Medio Ambiente y del Departamento de Comunidad y Gobernanza).

– Se organizarán reuniones abiertas de participación ciudadana. Una vez redactado el documento de Aprobación Inicial de la Modificación Puntual del PGOU, se realizará una reunión abierta para explicar la propuesta.

– El material elaborado y los documentos urbanísticos estarán a disposición de la ciudadanía. Estarán disponibles todos los documentos, resúmenes y soportes elaborados en las oficinas y en la página web del Ayuntamiento de Tolosa.

*Tercero.* Publicar en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa el Programa de Participación Ciudadana de la Modificación puntual del Ámbito Urbanístico «23. Usabal Industrialdea 2» del PGOU, y difundir a través de las nuevas tecnologías de la información.

*Cuarto.* Solicitar información a los departamentos competentes en materia de protección civil, medio ambiente, patrimonio cultural y medio natural del Gobierno Vasco y de la Diputación Foral sobre los riesgos existentes y los condicionantes ambientales que debe respetar la ordenación del municipio, sobre la protección del patrimonio cultural, y sobre el medio natural.

Tolosa, a 2 de febrero de 2023.—La alcaldesa, Olatz Peon Ormazabal. (803)